

DONOSTIAN ENPRESA BERRIAK SORTZEA SUSTATZEKO 2024KO LAGUNTZEN PROGRAMA ARAUTZEKO OINARRIAK

ATARIKOA

Donostia Sustapena Sozietateak 2023an hirian berrikuntza arloko erreferente bilakatzera eta Donostiako Berrikuntza Agentziaren eginkizuna betetzera bideratutako estrategia eta kudeaketa-eredu berriranzko trantsizio baten aldeko apustua sendotu du.

Horrek berekin dakar pertsonen, enpresen eta proiektuen bidelagun izatea, pertsonalizazioa, kalitatea eta begirada estrategikoa ardatz hartuta, eta hiriko berrikuntza arloko ekosistema osatzen duten eragile publiko zein pribatu ezberdinekin lankidetzaz aritzearen aldeko apustu argi batekin.

Gaur egun, hiriak 15.600 enpresako enpresa-parkea du. Horrek 1.000 biztanleko 80 enpresako enpresa-dentsitatea suposatzen du. Espainian hirugarren hiri modura kokatzen da, Bartzelona eta Madrilen atzetik, eta hiriburu adierazgarri batzuen aurretik, adibidez, Valentzia, Malaga edo Bilbo.

Haatik, JET tasa (Jarduera Ekintzailearen Tasa), pandemia aurretiko mailatan kokatzen bada ere, % 7ra iritsi baita Espainiako batez bestekoaren (% 6) gainetik kokatuz, oraindik esparru honetan aurreratuago dauden ekosistemetatik eta EB-ko batez bestekotik ere (% 8,9) urrun samar dago.

2023an Donostia Sustapenak, tokiko garapen sozial eta ekonomikorako ardatz estrategiko gisa, ekintzailtza eta enpresa-proiektu berrien sorkuntza babestearen aldeko bere apustuan, zuzeneko eragina izan zuen 169 enpresen sorreran bere laguntza-programaren bidez.

Esparru honetan eta helburu horiekin, Donostia Sustapenak enpresa berriak sortzeko laguntzen deialdi hau luzatzen du.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

Laguntza hauen helburua Donostian sortutako enpresa berriei lanpostu berriak, berezko kontura zein besteren kontura, sortzen laguntzea da, **eta bereziki, beren proiektuak Donostia Sustapeneko zerbitzu eta programen bidez garatu dituzten eta merkataritza-lokalak gaitzen dituzten eta berritzaileak diren enpresei.**

Laguntza berezia emango zaie, igoera ekonomikoekin edo aparteko zenbatekoekin, honako ezaugarri hauek betetzen dituzten enpresei:

- Donostia Sustapenaren ekintzailtza-zerbitzu edota –programen laguntza jaso izana.
- Lan-merkatuan sartzeko zailtasun gehiago dituzten kolektiboek bultzatuta egotea: emakumeak, 35 urtetik beherakoak edo 45 urtetik gorakoak.
- Merkataritza-lokalak kalean bertan izatea.
- Merkataritza-lokal horietan obrak egitea.
- Lokal horiek hiriko Ekialdeko Distrituan kokatuta egotea
- Izaera berritzailea duen enpresa-proiektua da. Berritzailezat joko dira oinarri hauetako 10. artikuluan aipatzen diren proiektuak.

Donostia Sustapeneko beste zerbitzu eta programa batzuekin batera, laguntzen deialdi honek emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bultzatzen du, eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak dituzten kolektiboen integrazioa ahalbidetzen du.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak HIRUREHUN MILA EUROKO (300.000,00€) zenbatekoa bideratuko ditu laguntza horietara.

Donostia Sustapena, S.A. sozietateak zenbateko hori aldatzeko eskubidea gordetzen du egokitzen jotzen baldin badu.

3. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

Laguntzaren pertsona onuradun modura hartuko da laguntza ematea ekarri zuen jarduera egin behar duen hura, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona, betiere, Oinarri hauetan jasotzen diren betekizunak betetzen baditu eta, espezifikoki, laguntza mota bakoitzarekin lotutakoak.

Pertsona onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, nazional edota atzerrikoak, eta baita aurrekoen izaerarik gabeko elkarteak ere, Oinarri hauetan ezarritako betekizunak jasotzen dituen ordenamendu juridikoaren arabera modu baliozkoan eratu baldin badira. Kanpoan geratzen dira ondarezko sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 14. artikuluan zehazten direnak.

Oinarri hauetan dagozkion laguntzak eskatzeko beharrezkoak diren betekizunak eta horiek egiaztatzeko moduak zehaztuko dira. Edozein kasutan, Diru-laguntzen Lege Orokorreko (aurrerantzean, DLLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da, ondorio hauetarako aplikagarritzat jotzen dena berariaz.

Ezingo zaie laguntza pertsona fisiko edo juridikoei eman:

- Indarreko xedapenek agindutako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen ez badituzte.
- Ebazpen irmoz dirulaguntzak edota laguntza publikoak jasotzeko aukeraren galerarekin zigortuak badaude, edo horretarako ezgaitzen dien legezko debekuren bat badute, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko Legegintzako 1/2023 Dekretuko 23.2 artikuluan xedatzen denaren arabera sexu-arrazoien ondoriozko diskriminazioagatik zigortuak badaude barne; era berean, ezingo dira horien onuradun izan pertsona fisikoak edo onuradunak sexuagatik diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigorzehapena jaso badu kasuan kasuko zehapenean ezarritako aldiak. Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean edukitzeko betebeharrarekin, halakorik ez duten enpresek ere ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso, ezta Estatuak emakumeen eta gizonen berdintasun arloan legeriaz ezarrita dituen baldintzetan sexu-jazarpena, sexu-arrazoien ondoriozko jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitu eta hari aurre egiteko neurriak ezarri izana egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresek ere.
- Donostiako Udalarekin edota Donostiako Sustapenarekin zorrak baldin badituzte.
- Aldez aurretik emandako laguntzak, osorik edo zati batean, itzultzeke badituzte, itzultzeko zenbatekoa ordaindu izana egiaztatzen ez den bitartean.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 28.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, interesdunek eskubidea dute jadanik Administrazio jardulearen eskuetan dauden dokumentuak edo beste edozein administrazio egindakoak ez helarazteko. Gainera, administrazio jarduleak aukera izango du dokumentu horiek behatu edo biltzeko, interesdunak horrekiko aurkakotasuna azaldu ezean. Kasu horretan, ziurtagiriak helarazi beharko lituzke.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarrengarritasun-aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko die eskumeneko herri-administrazioei jarraian adierazten den informazio hau, prozedura hau ebatzi eta ordaintzeari begira:

- Udalarekin eta Donostia Sustapenarekin ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekin ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak.
- Pertsona onuradunaren eta pertsona sustatzaileen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) historia
- Gizarte Segurantzarekin ordainketa egunean izatearen ziurtagiria.

Diru-laguntza eta ordainketa ezberdinak eskatzen dituzten unean Udal Diru-bilketa, Foru Ogasun edota Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituzten pertsona onuradunek HAMAR (10) egun balioduneko epean, jakinarazpenetik zenbatzen hasita, betebeharrak hori egunean izatea egiaztatzea beharko dute.

4. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHARRAK DITUZTEN BETEKIZUNAK

Hauek dira deialdian parte hartzeko onuradun diren pertsonen betebeharrak:

- Jardueraren zerga-egoitza eta aipagai dugun laguntzaren xede den lanlekua Donostiako udal barrutian kokatuta egotea. Pertsona fisikoen edo sozietate zibilen kasuan, egoitza sozial eta fiskal ezberdina onartuko da, betiere, Sustapenaren iritziz, jarduera Donostiako lanleku batean egiten dela adierazteko behar besteko ebidentzia badago.
- Enpresaren sorrera eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergan hasierako alta, edo dagokionean (abeltzaintza, nekazaritza, basozaintza edota arrantza jarduerak) zentsu aitopeneko alta, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean emanda izatea, bi egun horiek barne.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan jarduera berean edo antzekoan ez matrikulatu izana, laguntza eskatzen zaion enpresa sortu aurretiko sei hilabeteetan.
- Aurreko enpresa baten izaera juridikoa aldatze hutsagatik sortutako enpresa berriak ez izatea. Horregatik, jarduera berria abian jarri aurretiko sei hilabeteetan jarduera berean edo antzekoan, bakarka edo sozietate eran (edozein izanik ere partaidetza modua), titular gisa aritu diren pertsona sustatzaileak dituzten enpresa berriak ez dira onuradun izango.
- 2024ko urtarrilak 1 eta abenduak 31 bitartean Gizarte Segurantzaren gutxienez alta berri bat egotea. Eta berau lehendabiziko urtean zehar mantentzea.

Alta izan liteke bazkideen alta Langile Autonomien Araubide Berezian (LAAB), dagokion mutualitatea kolektibo profesional batzuen kasuan edo Araubide Orokorrean. Halaber, sortutako enpresa berriaren kontratatutako pertsonen Araubide Orokorrean alta onar liteke, betiere, kontratu mugagabeak badira, eta kontratazioa mantentzen bada enpresaren lehen urtean zehar. Ez da aldizkako kontratu mugagabe finkorik onartuko.

Kolaboratzaile autonomoen altak berriztat joko dira, betiere, laguntza eskatzen den ekonomia-jarduerarekin lotuta badaude.

- Laguntza jaso dezakeen enpresa eratu aurretik, bazkideren batek Donostia Sustapenak aldizka eskaintzen dituen prestakuntza-saioak egin izana edo Donostia Sustapenaren ekintzailtza-programetan proposatutako ibilbidea osatu izana.

Haatik, Donostia Sustapenak aukera izango du prestakuntza hori egitearen salbuespena deklaratu ahal izateko, baldin eta **ekintzailtza-proiektuaren aurretiko azterketa** egin izana egiaztatzen bada, **enpresa-plan bat edo gogoeta-dokumentu eratuz, gutxienez, eduki honekin:**

- Sustatzailearen edo Talde Sustatzailearen identifikazioa
- Negozio-ideiaren deskribapena
- AMIA
- Merkatuaren eta merkataritza-estrategiaren azterketa
- Azterketa ekonomikoa

Donostia Sustapenak salbuespenerako beste bide ezohiko batzuk balioetsi ahal izango ditu, betiere, modu sendoan argudiatuta badaude.

- Pertsona juridikoen kasuan, jarraian zerrendatzen diren betekizunak bete behar dira:
 - Bere aktiboa ez izatea 10 milioi eurotik gorakoa, edo bestela, eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehaztu bezala, 10 milioi eurotik gorakoa ez izatea.
 - Batez beste, plantillan 50 pertsona baino gutxiago eduki behar ditu. Plantillaren batez bestekoa kalkulatzeko jardun osoko urteko langileak izango dira kontuan. Lanaldi partziala duten langileen kasuan, lan egindako orduen proportzioaren arabera izango da zenbaketa.
 - % 25 edo gehiagoan ez daitezela egon aurreko 1. eta 2. puntuetan aurreikusitako betekizunetakoren bat betetzen ez duten enprekin partaidetuta, zuzenean edo zeharka.

Entitatea sozietate talde bateko kidea bada, Merkataritza Kodeko 42. artikulua arabera, aurreko 1. eta 2. puntuetan aipatutako magnitudeak talde horretako entitateen multzoari dagozkio.

Aktibo osoa eta eragiketa bolumena kalkulatzeko, kontuan hartu behar dira Merkataritza Kodeko 46. artikuluan eta kode hori garatzen duten arauetan aurreikusitakoaren arabera egin beharreko ezabaketak.

Ezingo dute pertsona onuradun izaera izan honakoek:

- Irabazi asmorik gabeko Fundazio, erakunde eta Elkarteek.
- Ezingo dira onuradun izan % 25 baino gehiagoan Sektore Publikokoak diren erakundeen (halakotzat ulertuta, Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak lekualdatzeko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 3. artikuluan barneratzen diren erakundeak), irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondarezko sozietateen edota Elkargo Profesionalen mendeko edo horiek partaidetutako erakundeak.

5. ARTIKULUA. LAGUNTZEN ZENBATEKOAK

Zenbateko ezberdinak eskuratzeko aukera izango da, sortutako enpresaren ezaugarrien arabera.

Enpresako eskaera bat aurkeztu ahal izango da soilik.

Sortutako enpresa berrientzako laguntzaren gehieneko zenbatekoa honako hau izango da, Merkataritza-lokal bat kalean bertan izatearen ala ez izatearen arabera, alokairuan zein jabetzan:

- HAMAR MILA (10.000€) EURO **kalean bertan merkataritza-lokala DUTEN** enpresa berrietarako
- BOST MILA ETA EHUN (5.100€) EURO **kalean bertan merkataritza-lokala EZ DUTEN** enpresa berrietarako.

Zenbateko horietara iritsi ahal izango da honako hauek betetzen direnean:

Oinarrizko laguntza

Oinarrizko laguntza enpresa berri guztientzat **MILA BOSTEHUN (1.500,00€) EUROKOA** izango da

Oinarrizko zenbatekoa areagotu agin ahalko da laguntza guztietan, betiere honako hauetakoren bat betetzen bada. Aipatutako igoerak metagarriak dira:

1.- Kolektibo hauetakoren batekoa izatearen ondoriozko igoera

- **EHUN ETA BERROGEITA HAMAR (150,00€) EUROKO** igoera, pertsona bazkideren batek kolektibo hauetakoren batekoa izatearen baldintza betetzen badu:
 - Emakume ekintzaileak.
 - 45 urtetik gorako pertsonak
 - 35 urtetik beherako pertsonak

Azaldutako kolektiboetako bateko kidea izatea justifikatze aldera, enpresan alta eman zen eguna hartuko da erreferentzia gisa. Aurreko puntuetan deskribatzen diren kolektiboetako bateko kidetza **ez da metagarria** igoera horri dagokionez, eta horrenbestez, egoeretako bakarra egiaztatu ahal izango da.

- **LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR (450,00€) EURORA** arteko igoera Donostia Sustapenaren ekintzailtza-zerbitzu edota –programetako ibilbideak osatu dituzten enpresentzat.

Donostia Sustapena izango da sortutako enpresak edo bertako sustatzaileek zerbitzu eta programa horietan parte hartzen dutela egiaztatuko duena, igoera hori eskatzen duten enpresen kasuan.

2.- Kalean bertan dauden merkataritza-lokaletarako igoera

Enpresak merkataritza-lokal bat duenean kalean bertan (alokairuan edo jabetzan) bere jarduna garatzeko, honela areagotu ahal izango da laguntzen zenbatekoa.

- **BOSTEHUN (500,00€) EURORA** arteko igoera kalean bertan dagoen merkataritza-lokala hiriko Ekialdeko Distrituan kokaturik badago.

- **BI MILA (2.000,00€) EURORA** arteko igoera kalean bertan dagoen merkataritza-lokal bat alokatu edo bere hipoteka ordaintzeko.
- **ZAZPI MILA (7.000,00€) EURORA** arteko igoera kalean bertan dagoen eta enpresaren jarduna garatzeko baliatzen den merkataritza-lokalean obrak egiteko edo berau eraberritzeko egindako gastuetarako.

2024ko urtarrilaren 1etik urriaren 30era bitartean alta eman duten enpresek egindako obren fakturak aurkeztu beharko dituzte, eta fakturen zenbatekoaren igoera emango zaie (zerga-oinarria), eta gehienez, 7.000 euro.

2024ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra alta eman duten enpresek egiteko obren aurrekontua aurkeztu ahal izango dute. Kasu horretan, aurkeztutako aurrekontuen zenbatekoa onartuko zaie, eta gehienez 7.000 euro. Zenbateko hori ezingo da ordaindu justifikazioa aurkezten den arte, eta ezingo da hasieran onartutakoa baino handiagoa izan, azken gastua aurreikusitakoa baino handiagoa izan arren.

Kalean bertan dauden merkataritza-lokaletarako igoerak metagarriak dira.

3.- Proiektu berritzaileak:

HIRU MILA (3.000,00€) EURORA arteko igoera artikulua honetan ezarritako irizpideen arabera Berritzaile modura balioetsita dauden proiektuak dituzten enpresetarako.

Proiektu berritzailearengatiko igoeraren kasuan, bi bide hauekiko bat erabiliz baliozkotu ahal izango da:

1. Pertsona eskatzaileak Donostia Sustapenak kudeatzen dituen ekintzailatza bultzatzeko potentzial handiko programetako batean parte hartu izana: Ekin+, Ekin+ Osasuna, Habia, edo proiektu berritzaileetarako ildo horretatik gara daitezkeen beste zenbait.
2. "Proiektu Berritzailearen Memoria" eranskinaren gidoiarekin helarazitako proiektuaren memoriaren gaineko ebaluazio baten bidez. Kasu horretan, proiektu berritzaileat jotzeko gutxienez 25 puntu eskuratu beharko ditu. Puntuazio hori honako irizpide hauen arabera balioetsiko da:

ENPRESA BERRITZAILEAREN BALIOESPENA	
	50
1. ENPRESA-BERRIKUNTZA MAILA ETA BIDERAGARRITASUNA	30
2. I+G+b ARLOAREKIN eta TEKNOLOGIAREKIN DUEN LOTURA MAILA	20

6. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK

Diruz laguntzekoak dira lehendabiziko hilabeteetan enpresa abian eta funtzionamenduan jartzeari berez dagozkion eta beharrezkoak diren gastuak, betiere, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) alta eman baino 2 hilabete lehenago (edo zentsu aitopenenaren alta kontuan izanik) eta alta eman eta hurrengo 12 hilabeteen artean egin badira gastu horiek. Kanean bertan dauden merkataritza-lokalak eraberritzearekin lotutako gastuen kasuan alta baino 2 hilabete lehenagotik atzera egindakoak izan daitezke.

Halakoak izan daitezke diruz lagun daitezkeen gastuak:

- Enpresa eratzeako gastuak, esate baterako: irekiera-lizentzia, jarduera-lizentzia, notaritzako eta Merkataritza Erregistroko gastuak zein negozioa martxan jartzeko derrigorrez ordaintzeko beste zenbait tasa.
- Aurretiaz dauden enpresak baitaratzea, haiek garatutako jarduerarekin jarraitu asmoz.
- Ekonomia-jarduerarekin lotutako inbertsioak. Finantza-errentamendu bidez (leasing) lbilgetu materiala erosiz gero, diruz laguntzekoak izango dira kuotak, interesik gabe.
- Ibilgailuak erosiz gero, soilik modu frogagarrian ekonomia-jardueraren garapenerako eskusiboki lotuta daudela erakusten bada.
- Patenteak, erabilera-ereduak, markak eta diseinu industrialak izapidetu eta eskuratzetik eratorritako gastuak.
- Jarduerarekin berarekin eta bazkideen trebakuntza profesionalarekin lotutako prestakuntza-gastuak, gaitasunak hobetzekoak, kanpoan geratzen direlarik tituluak eskuratzeko diren gastuak, bidaiia-gastuak, joan-etorriekin lotutakoak, ostatu hartzeari dagozkionak edo edozein dieta motarekin lotutakoak (gosaritako, bazkaritako edo afaritarako gastuak).
- Langile autonomoen araubide berezian eta Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean kotizatze ordainketari dagozkion kuotak.
- Soldatak (Nominak). Soilik dirulaguntza hau jasotzeko eskatzen den Gizarte Segurantzako alta lan-kontratu mugagabe batekin justifikatu denean.
- Ekonomia-jarduerari lotutako higiezinak egokitu edota eraberritzeko obrak.
- Proiektuarekin lotutako komunikazio-gastuak. Besteak beste, publizitate-kanpainak, web-orrialdeen diseinua edota gizarte-sareen diseinua barneratu ahal izango dira.
- Kanean bertan dagoen merkataritza-lokal baten alokairurako edo hipotekarako igoera eskatu bada, halako gastuak aurkeztu ahal izango dira:
 1. Ekonomia-jarduerari lotutako higiezin errentamendu-gastuak (alokairuak). Ez da alokairu-kontraturik onartuko, baldin eta kontratu horien jabeak bat badatoz enpresako bazkideetako batekin edota 2. mailarainoko ahaideekin.
 2. Merkataritza-lokalaren hipoteka-maileguaren kuotak.
 3. Jarduera garatzeko lokalari lotutako higiezin-kudeaketarako gastuak.
- Merkataritza-lokalean obrak egin edo berau eraberritzeko gastuetarako igoera eskatu bada, honako hauek izan beharko dira diruz lagun daitezkeen gastuak, atal honetan justifikatu beharko direnak:
 1. Erakusleihu edota pertsianak berritu edo aldatzea.
 2. Barneko eta kanpoko argiztapena.
 3. Lokalean egiteko igeltserotza, arotzeria, iturgintza, elektrizitate eta pinturako obrak edo zaharberritze-lanak.

4. Fatxada zaharberritu edota eraberritzea: igeltserotza-, arotzeria- eta pintura-lanak.
5. Irisgarritasuna.
6. Lokala eraberritzeko proiektu teknikoa, eskumeneko elkargokide teknikariak sinatuta, eta lokalaren obra-lizentziari eta lokalaren irekieralizentziari dagokion udal tasa, hala badagokio.
7. Antzeko beste zenbait.

Gastuak justifikatzeko aurkezten diren fakturak osorik ordainduta egon beharko dira, diruz laguntzekoak izan daitezzen.

Jarduera garatzeko merkataritza-lokalean obrak egiteko aurrekontua aurkezten denean (alta azaroan eta abenduan denean soilik) onartutako zenbatekoa aurrekontu horiena izango da (zerga-oinarria), baina ez da ordainketa egingo dagozkion fakturak aurkeztu arte justifikazioaren unean. Ordaintzeko zenbatekoa sekula ez da onartutako zenbatekoa baino handiagoa izango, eta ezingo da izan eskaera-fasean aurkeztutako aurrekontuz kanpoko gastu ezberdinetarako.

Gastua justifikatzeko ez dira kontuan izango 100 eurotik beherako (BEZ aparte) zenbateko gastuak frogatzeko faktura eta dokumentuak. Autonomo-kuotak salbuetsita, horiek diruz laguntzekoak izango baitira, zenbatekoa edozein izanda ere.

Kreditu-txartelarekin edo zordunketa-txartelarekin, banku-transferentzia bidez edo helbideratze bidezko ordainagiriaz egindako ordainketak onartuko dira soilik. Ez da eskudirutan egindako ordainketarik onartuko, ezta Bizum sistemarekin egindakoak, edo merkatuan ager litekeen antzeko tresna/aplikazio bidez egindakoak.

Egindako ordainketen egiaztagirietan burututako eragiketaren xehetasunezko informazio guztia jasoko da (Onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data, etab.) eta ez da, inolaz ere, banku-mugimenduen zerrenda onartuko.

Ez dira, inolaz ere, diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko honako hauek:

- Enpresak gerora merkaturatzeko asmoz azken produktua eskuratzeko beharrezkoak diren produktu komertzialen edota materialaren erosketa, ezta laginak eratu edo ekoizteko produktuak erosteko egindakoa.
- Material suntsikorren eta bulegoko materialaren erosketa.
- Hornidurak (argia, ura, telefonoa...).
- Joan-etorrietarako eta ostatu hartzeko gastuak, edo edozein dieta mota (gosaritarako, bazkaritarako edo afaritarako gastuak).
- Eguneroko zerga- eta kontabilitate-liburuak eta -betebeharrak edukitzeari buruzko aholkularitza fiskala, lan arlokoa, kontabilitatekoa, juridikoa edo administratiboa.
- Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.
- 100 eurotik beherako zenbatekoko fakturak, zergak aparte. Autonomo-kuotak salbuetsita, horiek diruz laguntzekoak izango baitira, zenbatekoa edozein izanda ere.

Eta, bereziki, alokairuen kasuan, ez dira diruz laguntzeko gastutzat hartuko honako hauek:

- Fidantzak, gordailuak edo betebehar bat betetzea bermatzeko antzekoak.

7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN BATERA EMATEA

Laguntzak hauek Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko organismoetako edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatutik (nazionalak) eratorrita, helburu bererako diren beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, batera gertatzen diren beste diru-laguntzak arautzeko araudian horri dagokionez ezar daitekeenaren kalterik gabe, betiere, baldintza hauek betetzen badira:

Oinarri hauetan ezartzen diren laguntzek “minimis” izeneko laguntzetan Europar Batasunaren Funtzionamendurako Tratatuak 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 15ko EBAO aldizkarian argitaratutako 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 zenbakidun Erregelamenduan (EB), ezarritako “minimis” arauak beteko dituzte.

Oinarri hauetan adierazitakoarekin bat etorritik jasotako laguntzaren zenbatekoa ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duen zenbatekoa izan, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batekin batera.

8. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA.

Laguntza honen deialdia dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da eta, gerora, haren laburpen bat argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. **Laguntza-eskaerak laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira.**

EJZ zergan (edo zentsu aitorpenean, hala dagokionean) **alta oinarrien iragarkia argitaratu aurretik eman duten enpresen kasuan**, epea bi hilabetekoa izango da iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia **argitaratu den egunean edo beranduago alta eman duten enpresen kasuan**, epea 2 hilabetekoa izango da EJZ zergan (edo zentsu aitorpenean, hala dagokionean) alta eman denetik, eta betiere, 2024ko abenduaren 31a baino lehen.

I Eskaerak modu telematikoan aurkeztu beharko dira Donostia Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus).

Edozein informazio, zalantza edo kontsulta gehigarri izanez gero, Donostia Sustapenak pertsona guztien eskura izango du [943482800](tel:943482800) telefono-zenbakia edo

fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoa, eta horietara jo ahal izango dute, edozein kasutan, gai modura zera adieraziz: Sorrera Laguntza 2024.

Eranskinak osorik bete beharko dira eta behar bezala sinatuta egon beharko dira.

Eskaera egiteko dagokion inprimakiarekin batera, Oinarri hauetan eskatzen den administrazio dokumentazio guztia atxikiko da.

Laguntza ekonomiko hau eskatzeko interesa duten enpresek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

Dokumentazioa:

ERANSKINAK	
1	Eskaera-eranskina (<i>sinadura elektronikoa eskatzen du</i>)
2	Enpresa eskatzailearen bankuko datuen eranskina banku-erakundearen zigiluarekin, edo banku-agiri baliokidea (titulartasun-ziurtagiria).
3	Finantza arloko Memoriaren eranskina, fakturak eta ordainagiriak gaineratuta.
4	Proiektu Berritzailearen Memoriaren eranskina (igoera hori eskatzekotan soilik)

ENPRESAREN DOKUMENTUAK	
5	Enpresa eskatzailearen IFK zenbakia
6	Pertsona juridikoaren kasuan, eraketa-eskritura edo -agiria, Estatutuak edo fundazio-akta, bertan jarduera hori arautzen duten arauak agertuz, hala badagokio, dagokion Erregistro Publikoan behar bezala inskribatuta, pertsona juridiko motaren arabera.
7	Berezko izaera juridikorik gabeko Sozietate Zibilen kasuan, kontratu pribatua gaineratuko da, Foru Ogasunaren zigiluarekin.
8	Fakturen kopia eta horien ordainagiria, 5. artikuluan hitzartutakoarekin bat etorriz (Dokumentu horiek eskaera egiten den unean edo justifikatzeko unean aurkeztu ahal izango dira) (Alta azaroan eta abenduan egin bada, eta soilik obren kasuan, aurrekontuak aurkeztu ahal izango dira).
9	Kontratu mugagabez kontratatutako pertsonen kontratuaren kopia, enplegua sortzearen betekizuna enpresarekin lotutako langileen kontratazioarekin lotzen denean.

PERTSONA BAZKIDEN DOKUMENTUAK	
10	Pertsona eskatzailearen eta laguntza jaso asmo duten gainerako bazkideen NAN agiria.
11	Pertsona sustatzailearen lan-bizitza, enpleguaren sorrerari dagokion betekizuna betetzea dakarren Gizarte Segurantzaren alta berria jasota, edo dagokion Mutualitatean alta ematearen kopia elkargokide diren profesionalen kasuan.
12	Donostia Sustapenak eskainitako prestakuntza ez egitearen ondorioz salbuespena egiaztatu behar bada: <ul style="list-style-type: none">• Enpresa-plana edo gogoeta-dokumentua, gutxienez, oinarri hauetako 4. artikuluan adierazitako edukiarekin.

IGOERAK EGIAZTATZEKO DOKUMENTUAK	
13	<u>Alokairu edo hipotekaren</u> ondoriozko igoeraren kasuan: alokairu-kontratua, bi aldeek behar bezala sinatuta, edo hipoteka-maileguaren eskritura.
14	Merkataritza-lokalean egindako obren fakturak. Obren ondoriozko igoera eskaera aurkeztu aurretik egindako obren kasuan soilik onartuko da, azaroan eta abenduan emandako altak salbuetsita, horiek obretarako aurrekontua aurkeztu ahal izango baitute.

Onuradun den pertsonak egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien nahiz aurkeztutako gainerako dokumentazioaren egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa hartzen du beregain.

Eskaeraren eranskinean adierazten ez diren igoerak ez kontuan izatea gerta liteke.

Donostia Sustapenak aurreko edozein betekizun betetzen dela egiaztatzeke edozein dokumentazio edo informazio gehigarri eskatzeko eskubidea gordetzen du.

Pertsona edo erakunde eskatzaileak aldeztatu aurretik aipatutako dokumentuetakoren bat aurkeztu badu 2018tik aurrera Donostia Sustapenaren laguntza-programaren batean parte hartu izanagatik, ez du jadanik helarazi duen dokumentazioa aurkeztu beharko, betiere, indarrean jarraitzen badu edota hartan aldaketarik izan ez bada.

Diru-laguntza eta ordainketa ezberdinak eskatzen dituzten unean Udal Diru-bilketa, Foru Ogasun edota Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeke dituzten erakundeek hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute. Horretarako, Donostia Sustapenak zuzenketa-jakinarazpena bidaliko du.

Onuradun den pertsonak egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien nahiz informazio guztiaren eta aurkeztutako gainerako dokumentazioaren egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa hartzen du beregain.

9. ARTIKULUA ESKAERETAKO AKATSAK KONPONTZEA

Donostia Sustapenak dokumentazio osoa berrikusi ostean hura osagabe dagoela edo dokumenturen bat falta dela ikusten bada, pertsona eskatzaileari eskaera egingo zaio falta den dokumentazioa gainera dezan edo beharrezkoak diren dokumentuak gainera ditzan, gehienez, **hamar (10) egun balioduneko epean**, hala egin ezean, bestelako izapiderik gabe, eskaera horretatik baztertuta izango dela eta horren ondoriozko ebazpena emango dela adierazita. Gainera, komenigarritzat jotzen duenean, Donostia Sustapenak eskubidea gordetzen du pertsona edo erakunde eskatzaileak helarazitako edozein dokumentu edo informazioaren gainean egokitzen jotzen dituen argibideak eskatzeko.

Akatsen zuzenketa horiek pertsona onuradunak harremanetarako posta elektronikoko modura ematen duen helbide elektronikoz jakinaraziko dira.(JAKINARAZPENETARAKO HELBIDE

ELEKTRONIKOA). Edozein kasutan, jakinarazpen horiek eskuragarri egongo dira web-aplikazioan, pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzaren espedientean.

Balizko zuzenketak egiteko eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egiteko baliatutako bide bera erabiliz aurkeztuko da. Ez da posta elektronikoz egindako zuzenketarik onartuko.

Laguntzak Donostia Sustapenak emandako berariazko ebazpen arrazoitu bidez onartu edo ukatuko dira, Oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza bakoitza betetzen den ala ez kontuan izanik.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN IZAPIDEA ETA EBAZPENA

Eskaerak erregistroko hurrenkeraren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, baliabide ekonomikoak agortu arte.

Eskatutako laguntzaren ebazpena igortzeko epea LAU (4) hilabetekoa izango da eskaera erregistratzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan ez dira kontuan izango dokumentazioko akatsak konpontzeko epeak. Laguntza ematearen ebazpena hitzartutako epean ez igortzeak ez du suposatuko haren emakida.

Pertsona eskatzaileak zer igoeratarako aukera izan nahi duen adierazi beharko du eskaeran. Donostia Sustapenak erabakiko du pertsona eskatzaileak eskatutako igoeren betekizunak betetzen dituen, eta ez da eskaeraren eranskinean adierazi gabeko igoera aintzatestera derrigorputa egongo.

Eskaera ebazteko, Donostia Sustapenak pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako derrigorrezko dokumentazioa berrikusiko du. Eskatu gabe aurkeztu den beste edozein dokumentazio ez da zertan berrikusi laguntzaren ebazpena emateko.

Laguntza Donostia Sustapenak emandako berariazko ebazpen bidez eman edo ukatuko da, eta posta elektronikoz jakinaraziko da.

Ebazpenak pertsona eskatzaileei jakinaraziko zaizkie eta pertsona onuradunen zerrenda argitaratu egingo da.

Deialdi honi dagozkion jakinarazpenak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira, eskaeran adierazitako helbide elektronikoa baliatuz.

Bidalitako ebazpenarekin desadostasuna izanez gero, alegazioak aurkeztu ahal izango dira, beranduenez, ebazpena ematen den egunetik hilabetera. Horretarako, beharrezkoa izango da Donostia Sustapenarekin harremanetan jartzea eta hark izapidea burutzeko jarraitu beharreko prozeduren berri emango du. Donostia Sustapenak erabakitzen duenari jarraituko zaio eta, hala badagokio, bi alderdiak Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

11. ARTIKULUA. LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Diruz lagun daitezkeen gastu modura onartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak zalantzarik gabe, Oinarri hauetan ezarritako epean eta baldintzetan egiten badira. Diruz lagun daitezkeen gastuen eskuratze-kostua ezingo da, inolaz ere, izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Diruz lagun daitezkeen gastuetan, berariaz hari helduz, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 31. artikulua izango da aplikagarri.

Enpresa berriak sortzeko laguntzak bi alditan ordainduko dira, eta behin gastu guztiak justifikatu ondoren.

Lehendabiziko ordainketa laguntzaren ebazpena ematen den egunean egingo da eta eskaeraren unean justifikatutako gastuen zenbaterako iritsiko da, emandako zenbatekoaren % **80ko maximora arte**.

Bigarren ordainketa enpresak alta ematen duen egunetik zenbatzen hasita (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari, edo hala dagokionean, zentsu aitortpeneko altaren egunari dagokion eguna) **12 hilabete igaro ondoren** egingo da, eta behin azken justifikazioa aurkeztu ondotik. Geratzen den gainerako zenbateko justifikatua ordainduko da, emandako laguntzaren maximora iritsi arte. Ordainketa hori egin dadin enpresak mantendu egin behar du jarduera lehendabiziko 12 hilabeteetan.

Azken justifikazioa aurkezteko gehieneko epea hilabete 1ekoa izango da, enpresak alta ematen duen egunetik 12 hilabete igaro ondotik (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokion altaren eguna, edo zentsu aitortpenari dagokion altaren eguna).

Epe horiek betetzen ez badira, ez da laguntzaren bigarren ordainketa egingo.

Honako hau da pertsona onuradunak laguntza justifikatu eta ordaintzeko aurkeztu behar duen dokumentazioa:

JUSTIFIKAZIOAREN DOKUMENTUAK	
1	Eranskina: "Justifikazioa", ordura arte erakunde pribatu zein publikoei xede bererako eskatutako edo jasotako gainerako laguntzen inguruko erantzukizunpeko adierazpena barneratzen duena
2	"Finantza arloko Memoria" eranskina, fakturei eta ordainagiriei gaineratuta.
3	Diruz laguntzeko gastuak egiaztatzeko dokumentuak eta egindako ordainketen egiaztageria, bi kasuetan eskaeraren unean aurkeztu ez badira.
4	Enpresaren lehen urtean zehar Gizarte Segurantzari alta egoeran mantentzen dela dokumentatzen duen pertsona sustatzailearen lan-bizitza edo dagokion Mutualitatearen dokumentazioa profesional elkargokideen kasuan. Enpresak alta ematen duen egunetik zenbatzen hasita (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari, edo hala dagokionean, zentsu aitortpeneko altaren egunari dagokion eguna) 12 hilabete igaro ondoren igorritako dokumentua.

5	Kontratazioaren ondoriozko enplegu-sorreraren kasuan: Enpresaren lan-bizitza, enpresaren lehen urtean zehar enplegua mantentzen dela egiaztatzea.
---	---

Diru-laguntza eta ordainketa ezberdinak eskatzen dituzten unean Udal Diru-bilketa, Foru Ogasun edota Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeke dituzten erakundeek hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da, eta laguntzaren espedientean jaso beharko da, eta sekula ez enpresaren dokumentazioaren atalean.

Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko. Era berean, eranskin guztiak osorik bete behar dira.

12. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauen onuradun diren pertsonak azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 14. artikuluan jasotzen diren betebeharrak hartuko dituzte beregain, ondorio hauetarako aplikagarritzat jotzen dena berariaz, betebeharrak hauek aipatzen (zerrenda modura eta ez mugatzaile modura) direlarik:

- Ekarpena diruz lagundutako jarduerak burutzera bideratzea.
- a) Diruz lagun daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa ezarritako moduan eta denboran aurkeztea.
- b) Jasotako laguntzak aplikatzea justifikatzeko dokumentuak gordetzea, egiaztatu edota ikuskatu daitezkeen bitartean eta, edozein kasutan, aplikagarri den araudian ezartzen den epean zehar.
- c) Proiektuak dituen jardueren gastu edo diru-sarrerak osorik zenbatzea.
- d) Kontabilitateko liburuak behar bezala osatzea, horretarako betebeharrak dagoenean.
- e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- f) Laguntzak emateko kontuan izan den edozein inguruabar, subjektibo nahiz objektibo, aldatu bada, Donostia Sustapenari horren berri ematea.
- g) Emandako laguntzekiko dituen zereginak betetzeko Donostia Sustapenak eskatzen duen informazio oro helaraztea.
- h) Donostia Sustapenari helburu berarekin jasotako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen berri ematea.
- i) Jasotako laguntzarekin lotuta Donostia Sustapenak dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.).
- j) Donostia Sustapenari laguntzen xede den eskaeran aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein inguruabarren berri ematea.
- k) Hala badagokio, Donostia Sustapenarekin kolaboratzea finantzaren kontrol eta egiaztapenerako burutu ditzakeen esku-hartzeetan, haren eskura eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia ipiniz.
- l) Laguntzaren xede den jarduera egiteko beharrezkoak liratekeen lizentzia edo baimen guztiak izatea.

- m) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako betekizunak betetzea.
- n) Laguntza ematea ahalbidetu duten enpresa eta bazkideen alta gutxienez 12 hilabeteko epeztan alta egoeran mantentzea enpresak alta eman zuen egunetik zenbatzen hasita (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokion altaren eguna, edo zentsu aitortzenari dagokion altaren eguna) emandako laguntzaren bigarren ordainketa kobratu ahal izateko.
- o) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikaziorako euskarrietan (webguneak, rrs, posta elektronikoak, megafonia, etab.) sustapen eta hedapenerako materialen edizioan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldien hizkuntza erabiltzean, etab.

Erakunde eskatzaileek aukera izango dute Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari aholkularitza eskatzeko testuen itzulpenak egin eta horiek zuzentzeko (gehienez hilean 1.000 karaktereko itzulpenak, eta zuzenketen kasuan gehienez 9.000 karaktere), betiere, zerbitzuaren betekizun eta inguruabarrak betetzen badira (<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es>).

13. ARTIKULUA. ITZULKETA

Pertsona onuradunak jaso duen ekarpena itzuli egin beharko du, diruaren interes legala gaineratuta (emandako kopuruaren ordainketa egin den unetik aurrera), egoera hauetako edozeinetan:

- Oinarri hauetan aurreikusten diren betebeharrak modu larri eta errepikatuan urratzea. Ez betetze larri edota errepikatu modura ulertuko da oinarri hauetako betebeharrak bat edo zenbait behin baino gehiago ez betetzea; helarazitako edozein datu, ziurtagiri, txosten edo dokumentazioaren faltsutasun edo faltsifikazioa; edota oinarri hauen esparruan jasotako laguntza, osorik edo zati batean, aurreikusitakoaz aparteko helburu batera bideratzea.
- Laguntzaren jomuga oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra urratzea, edota behar bezala ez justifikatzea.
- Onuradunaren jardueraren gainean egin litezkeen egiaztapen eta ikuskapen esku-hartzeen aurrean uzkur, aitzakiaz, buxaduraz edo ezkor agertzea, eta baita kontularitzako, erregistrozko edo dokumentuak gordetzeko betebeharrak ez betetzea horren ondorioz emandako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna, edo helburu berdinekin edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuen, nazionalen, Europar Batasuneko edota nazioarteko erakundearen aldetik jaso ahal izan diren diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak egiaztatzea ezinezkoa denean.
- Jarduerak neurritz gaineko finantzazioa jaso izana, xahutu ez den edo neurritz gain finantzatu den zenbatekoan.

Ekarpena itzuli beharko da, Donostia Sustapenaren aldetik eta onuradunari igorrita, jarraian deskribatzen diren baldintzekin, oinarri hauetan ezarritako arazoietakoren bat gertatzea adierazita.

Itzulketa laurogeita hamar (90) egun naturalen barruan egin beharko da, Donostia Sustapenak onuradunari artikulu honetan itzulketa egiteko aurreikusten diren arrazoietakoren bat gertatu dela adierazteko jakinarazpena burofax bidez igortzen dionetik.

Aurrez itzulketa egiteko adierazitako arrazoietakoren bat gertatzen baldin bada, era berean, onuradunak, hala badagokio, ordaintzeke lituzkeen kopuruak kobratzeko eskubidea galdu egingo luke.

Edozein kasutan, Laguntza hauen onuradun izateko eskatzen diren betekizunak uneoro bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak aukera izango horien itzulketa eskatzeko aurreko lerroaldeetan zehaztutako baldintzetan. Halaber, ez-betetzearen kasu larriagoetarako, esate baterako, datuak faltsutzea edo jasotako laguntza, osorik edo zati batean, desbideratzea, Donostia Sustapena SA sozietateak eskumena izango du emandako laguntza bertan behera uzteko eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztien itzulketa erabakitzeke, eta gainera, jasotako zenbatekoaren halako bost ordaintzeko eskatu ahal izango du.

14. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak babesteko indarreko araudian ezartzen denaren arabera, helarazten dizkiguzun datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela jakinarazten da, Tratamenduaren arduradun modura jardungo duena, Donostia Sustapena S.A. sozietateak kudeatutako informazioa izanik tratamenduaren arduradun izaeran.

Tratamenduaren xedea laguntza-eskaera izapidetu eta kudeatzea da.

tratamenduaren zilegitasuna DBEO erregelamenduko 6.1.e) artikuluan oinarritzen da: tratamendua ezinbestekoa da interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahal publikoak gauzatzeko burututako misioa betetze aldera: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Lege orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo eskaera egiteko dagozkion inprimakietan hala adierazten denean, datu pertsonalei buruzko informazioa entregatzea derrigorrezkoa izango da eta horiek ez emateak edo datu okerrak emateak eskaera kudeatu ahal izatea ekidingo du.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun diren pertsona eskatzaileek emandako datu pertsonalak, hala badagokio, laguntza horien finantzaketan parte hartzen duten edota horien kudeaketan Donostia Sustapenarekin kolaboratzen duten erakunde nazionalak edo nazioz gaindikoa erakundeei laga ahalko zaizkie, hori beharrezkoa denean eta soilik emakida kudeatzeko xedez.

Halaber, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela pertsona onuradunaren identifikazioko datuak komunikatu edo lagatzea, horiek, emandako laguntzaren

zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren web-orrialdean nahiz Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuz.

Ez da aurreikusten datuak hirugarrenei modu gehigarrian komunikatzea, legezko betebeharra salbuetsita, eta datuen nazioarteko transferentziak ere ez dauden aurreikusita.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak gorde egingo dira jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik erator litezkeen balizko erantzukizunak erabakitzeke eta datuak tratatu ahal izateko behar den denboraz. Artxibo eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

Eragindako pertsonak datuak hartu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak erabil ditzakete, eta baita datuak babesteko indarreko araudian jasotzen diren bestelako eskubideak ere, hala dagokionean, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzuaren aurrean (Easo kalea 41, 20006, Donostia).

Eskubideak erabiltzean behar bezala artatua izan ez bada, erreklamazio bat ipini ahalko da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua (01008, Gasteiz). Haatik, aldeztu aurretik eta hautaz, Donostiako Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko aukera izango da: dbo@donostia.eus.

15. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez iragarriko dira eta bertan argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Eskaera aurkezteak bertako Oinarriak osorik onartzea dakar.

Erantzukizunetik salbuestea.

Pertsona onuraduna izango da laguntzen den jarduera egitearen ondorioz, edo aurretik edo ondorengo esku-hartzeen ondorioz sortzen diren kalte pertsonal edota material guztien gaineko erantzule bakarra, Donostia Sustapena kontzeptu horien ondoriozko edozein erantzukizunetik salbuetsita geratuz.

16. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren laguntzak Oinarri hauetan jasotzen diren araei jarraikiz arautuko dira eta, horien ordeztu, Diru Laguntzen Lege Orokorrean jasotzen diren araei eta hura garatzeko

Erregelamenduari jarraikiz, Diru Laguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua (aurrerantzean DLLOE) onartzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartua. Haatik, Diru Laguntzen Lege Orokor horretarako edukiak kudeatzeko printzipioei eta 20. artikuluan aipatzen diren informazioei buruzkoei dagokienez eskusiboki, hori guztiori bertako 3.2. artikuluko bigarren lerroaldearekin bat etorritz, aplikazio hori zehazten duena.

Bestelakoan, DLLO eta DLLOE horiek soilik aplikagarri izango dira oinarri hauetan legezko testu horien gaineko aipu berariazkoak egiten direnean.

Donostia sinaduraren egunean

Ane Oyarbide

Tokiko Ekonomia eta Enpleguko Zinegotzi Delekatua.